


Gazteek balorazio positiboa ematen diote Euskadiko hezkuntza-sistemari: hamarretik seik uste dute ona edo oso ona dela


2012-2013 ikasturtea hasi berri dela eta, EAEko gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemari ematen dioten balorazioari buruzko zenbait datu eskainiko ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

2012an 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetatik seik (%59) iritzi ona edo oso ona dute gure hezkuntza-sistemari dagokionez. % 30ek ez dute ez iritzi onik ez txarrik, eta %8k balorazio txarra edo oso txarra eman diote. Gainerako %3ek ez dute erantzun edo ez dute jakin zer erantzun.

Balorazio hori 2008koaren nahiko antzekoa da, eta aurreko urteetan jasotakoa baino garaiaoa.



Lanbide Heziketako ikasketak (erdi-mailakoak nahiz goi-mailakoak) egin dituztenek balorazio zertxobait hobea ematen diote Euskadiko hezkuntza-sistemari derrigorrezko ikasketak, derrigorrezko ikasketen ondorengo Bigarren Hezkuntzakoak edo unibertsitatekoak amaitu dituztenek baino.



Bestetik, EAEko lau gaztetatik hiruk (%74) ikastetxean lanbide-orientazioa jaso dutela diote.

Ehuneko horrek behera egin du zertxobait 2008rekiko (ehuneko hori %76 zen orduan).

Lanbide-ikasketak egin dituztenek hein handiagoan adierazten dute lanbide-orientazioa jaso dutela ikastetxean.

